



topic.

tolosako
nazioarteko
zentroa

centro
internacional
del teatro
de tolosa

tolosako
puppets
international
center

centro
internacional
de la marioneta
de tolosa



platopic.

JOLASTUZ IKASI!


Hezkuntzak gaur egun teknologia berriekin egin du topo, honen erabilera zuzenak milaka abantaila ekar diezkiolarik.

Topic.en aspaldi gabiltza esparru honetan lanean, distantziak desagertaraziz eta zuek guztiokin on lineko irakaskuntza bidezko konexioak eginez; urteetako esperientzia batzen dugu, aurtengo egoerak jardun honen areagotzea ekarri badu ere.

Arduratsuak izan gara beti Topic.en teknologia berrien erabilpenari dagokionean, eta aurtengoan, inoiz baino arrazoi gehiagoz, **URRUTIKO HEZKUNTZARAKO** balia bideak eta programa berriak sortu ditugu.

Hauen bitartez eta TOPICera etorri gabe gu zuen ikasgelan egoteko aukera izango duzue, ikastordu batez eta txotxongiloen jarduera bitartez ikasgelako nozio ezberdinak indartzen.

[bideoa ikusi](#)



1-FORMAK ETA KOLOREAK

Jarduera honen bitartez txikienek formak eta koloreak identifikatzen ikasiko dute, hauekin txotxongilo bat eraiki eta harekin jolasten duten bitartean. Konexioa baino lehenago ikasgelan lantzeko ikas unitateak izango ditu eskuragarri irakasleak, baita konexioa amaitu eta gerorako ere, gurekin eraikitako txotxongiloekin jolasean jarraitu ahal izateko.

ADINA: 5 URTE, L.H. 1GO ETA 2.MAILAK

DATAK ETA ORDUTEGIA: ZUEN BEHARRETARA EGOKITUKO GARA.

IZEN EMATEKO: Deitu 943 650414 telefonora edo idatziezazue pedagogia@cittolosa.com helbidera eta hitzegin dezagun!

SALNEURRIA: 140 euro ikasgelako



2-HIZKIAK: Jarduera honen bitartez

txikienek hizkiak ezagutu eta hauek erabilia eta jolasaren bitartez hitzak josteko aukera izango dute, hizki ezberdinak izango diren txotxongiloak eraikiko baitituzte. Konexioa baino lehenago ikasgelan lantzeko ikas unitateak izango ditu eskuragarri irakasleak, baita konexioa amaitu eta gerorako ere, gurekin eraikitako txotxongiloekin jolasean jarraitu ahal izateko.

ADINA: 5 URTE, L.H. 1GO ETA 2.MAILAK

DATAK ETA ORDUTEGIA: ZUEN BEHARRETARA EGOKITUKO GARA.

IZEN EMATEKO: Deitu 943 650414 telefonora edo idatziezaguzue

pedagogia@cittolosa.com helbidera eta hitzegin dezagun!

SALNEURRIA: 140 euro ikasgelako



3-TXOTXONGILO BAT ZER DEN

ikasi nahi duten

gaztetxoentzat ere badugu aukera: jolas dibertigarri batzuen bidez ikasgelan txotxongilo bat zer den ikertzen joango dira, gurekin batera onlineko ikastorduan hatz txotxongilo bat eraiki eta dibertitzen jarraitzeko ideia pila jasoko dutelarik. Aukera paregabea gazteenen irudimena martxan jarri eta txotxongilolaritzaren jardunean murgiltzeko!

ADINA: L.H. 3. 4. 5. ETA 6. MAILAK, D.B.H. 1, 2, 3, ETA 4. MAILAK

DATAK ETA ORDUTEGIA: ZUEN BEHARRETARA EGOKITUKO GARA.

IZEN EMATEKO: Deitu 943 650414 telefonora edo idatziezazuzue pedagogia@cittolosa.com helbidera eta hitzegin dezagun!

SALNEURRIA: 140 euro ikasgelako



Ekintza aurrera eraman ahal izateko beharrezko materiala hurrengoa duzue:



Web kamera bat



Ordenagailu bat



Proiektzioarako pantaila bat



Skype kontu bat edota Gmail helbide bat (Konexioa Skype edota Hanghout bidez egiten baitugu)

Tailer guztietarako prozedura bera da eta oso sinplea :

1-Zuekin harremanetan jarriko gara eta materiala guk esandako gunetik jetsiko duzue ikastordua baina bi aste lehenago: material honekin motorrak berotuko dituzue ikasgelan gurekin konexioa egin arte.

2-Adostutako egunean eta konexioa egin baino lehen froga dei bat egingo dugu elkar ondo ikusten eta entzuten dugula ziurtatzeko

3-Handik egun gutxitara ikasleekin izango gara gu geu ikastaroa ematen.

4-Konexioa ondoren ere izango duzue gurekin egindakoa garatzeko materiala!



...animatuko al zarete?

NON GAUDE?

TOPIC

Euskal Herria, 1
20400 TOLOSA (Gipuzkoa)

T. 943 650 414

pedagogia@cittolosa.com



topic.

www.topictolosa.com